

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2742

*1018/2024 EBAZPENA, maiatzaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Javier Calzada Barrena jauna Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzen duena.*

Aztertu dugu Goierri-Urola Garaiko ESIko Zuzendari Mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen apirilaren 15eko 812/2024 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, maiatzaren 3ko EHAA (86. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Javier Calzada Barrena jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Aurreko guztia dela bide, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Javier Calzada Barrena jauna Goierri-Urola Garaiko ESIko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko maiatzaren 31tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.